

«Ain»-ez bukatzen diren euskal toponimoak*

EUGENIO ARRAIZA

Toponimoen garrantzia

LINGUISTIKA historikoan, eta linguistika horrela behar dugu landu, hitzak historian zer eboluzio izan duten ikertuz, alegia, toponimoek duten garrantzia da nabarmena.

Euskaraz idatzitako lehenbiziko agiriak XV-XVI mendetakoak bait ditugu, D'Etxepareren liburua baino lehenagoko euskal hitzak batez ere, balio haundiko ditugu hizkuntzaren eratorketaren ezaugarri. Euskal hitzik zaharrenak, bakan eta sakabanaturik, erromatarren garaiko hilarri eta sos batzutan azaldu dira. Geroago Erdiaroko agiritan, bai latinez, bai hasiberritako erromantzez idatzikoetan, euskal urrats ugari ageri da. Hoietan agertzen diren euskal izen eta toponimoak ditugu soil-soil lekuko gure arbasoen hizkuntza zer nolakoa izan zen adierazle. Halere gaur arte urrats hauek ez dute bide egiten hasteko aukerarik izan.

Egun, bai argitalpen kritikoetan, bai faksimiletan ezagutzera emanak ditugu berriro arte izkutuan egon diren euskal monastegietako agiriak. Ditugun ordenatzaile eta beste aurrerapenen bitartez, argitalpen hauekin euskal hitz zerrenda mardula osatzen ez da batere zail, bakoitzak dituen jokaitza askotan. Neri ezagunen zaizkidan agiriak aipatuz, Leire eta Oliva monastegietakoetan, toponimia eta deiturei dagozkien hitz ugari ageri da. Guzti hauek bilduz gero, filologi iker gai bikaina osa daiteke, ez XV-XVI mendeetan hitzegiten zen euskaraz baliaturik, baizik X mende inguruan erabili zenaz, bost mende lehenago erabili izan zen euskaraz, alegia.

Mitxelena dioenez: «La hipótesis básica, la que sirve de fundamento a todas, es que la toponimia, en su conjunto y ante todo en su núcleo más resistente, es menos mudable por su naturaleza que el léxico corriente y constituye por eso mismo un depósito de arcaísmos. Puede, pues, dar mucha luz sobre lo que en éste es más antiguo o más moderno. Además, y esto ya es un hecho que no admite discusión, un estudio espacial tiene que tener en cuenta, si se quiere ser

* Lan hau euskarazko B titulua eskuratzeko egina, hortarako eman zidaten epean Eusko Jaurlaritzan aurkeztu nuen 1985.go Apirilaren 1-ean. Urtea pasa eta horren berri jakin ezean, zerbait osatuxeago argitaratzeko garaia heldu zaiola deritzot.

«Ain» atzizkia hainbeste aldiz erabili zuen eta bitarte hontan joan zaigun, Perpetua Saraguetari opa diot, esker oneko oroitmenez.

un tanto completo, las áreas donde la lengua se ha perdido hace más o menos tiempo. Y ahí los nombres propios, ante todo los de lugar, son a menudo casi nuestra única fuente de información» (Fontes n.º 9 (1979), 247 or.).

Nafarroan talde batzu hasi dira toponimo bilketa egiten eta, egun euskeraz mintzatzen ez diren herrialde gehienetan, toponimoek gorde egin dute halere esanahien ezaugarria. Euskeraren galerak arriskuan utzi du hoiien gerorako iraunpena eta askotan aurreko mendeko agirietan ere iker lana egin behar da jatorrizko esanahiaz jabetzeko.

Hauxe dugu iker gai ederra gaurko euskaldunok: duen bere aintzinarekiko haria eten eta kutsa ez dadin, altxor honen muina arretaz ikertu etxeko kutxan betirako gorde izan aurretik.

AIN atzizkiak

Julio Caro Barojak bere «Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina» liburuan adierazten duenez, azken erromatarren garaian «fundus» edo «villa» ugari sortu zen Europako herrialde askotan. Hauen antolaketa berri ematerakoan, hauek nolako herrizka mota ziren azaltzen du eta baita sorreran izan zuten izenen bilakaera, latina eta beste hizkuntzen eragina zela bide.

Haien artean atal berezia dute «*aim*» atzizkiaz bukatzen diren herriek, Iruñerrian kokaturik gehienak. Caro Barojaren ikerketa lana linguistika arloan baino areago, historia eta soziologia arrazoietan finkatzen da. Arrazoi hoietatik ateratzen duen ondorioa da, herri hoiien erroa edo «etimo» latino dela eta «ain» bukaera latinezko deklinabidetik eratorria.

Luis Mitxelena «Apellidos vascos» bere liburuan, iritzi hau ontzat hartzen du, zehaztuz zalantza batzu gelditzen direla bai Caro Barojak proposatzen dituen izen batzuen etimoaz, baita «gain» bukaera euskaldun itxura duten beste kasu batzuetan ere. Halere osoki bagiraturik finkatutzat uzten du Caro Barojaren iritzi hura.

Luis M.^a Muxikak Caro Barojaren azalpenak histori arloan onartzeaz batera, «ain» atzizkia latinetik eratorria dela azpimarratzen du, berak linguistika arloa kokatzen bait du «Latina eta erromanikoaren eragina euskaran» liburua, eta bai etimo bai eratorria nolakoa izan den adierazten digu bertan.

Horrela Luis M.^a Muxika izan da urrutien joan dena tesi hau aurrera eramaterakoan eta azken mugaraino eraman ere. Bere liburuak argitaratu berriak bait dira, gai hontaz oraingoz azken hitza berea da.

Tesi honen sozio-histori-kultur garrantziaz jabetu naizelako, saiatuko naiz beste datu batzu azaltzen «ain» bukaera duten herriak beren sorreran «fundus» edo «villa» erromatarrek izan direla behin betirako erabakirik gera ez dadin. Etaaldi berean «ain» atzizkia latinetik ez datorrela probatzen saiatuko naiz.

Julio Caro Barojaren iritzia

Julio Caro Barojak, aipatu dugun bere liburuan, «La toponimia vasca y sus elementos» atalean, adierazten du bere lanaren gaia dela: «los nombres de pueblos navarros, pues estimo fundamental la distinción entre el nombre del lugar habitado y los nombres de accidentes geográficos etc». (or. 60). Bereizketa hori egitea gure kasu hontan funtsezkoa den, ikustekoa da, aztertzekoa. Linguistika aldetik begiraturik, toponimoak (hitz hau aipatu bait du atal honen izenburuan) herrien izenak baino zabalagoak izaten dira. Eskubide du herrien izenei buruz aritzeko, nahiz eta horrekin ordea, har zezakeen bidea hasiera-hasieratik estutu eta nora iritsi arriskuan jarri.

Gero Galian, Italian eta beste erromatar Inperioko herrialdeetan «fundi» izan zirela esanez, *Anduzain* izena aipatzen du: «*Anduzain* departamento de Gard, remonta a una forma latina, (Castrum) Andusianum». Adibide bat besterik ez du jartzen, zeren eta berak dioenez, geheinek «an» dute bukaera (Frontignan, Frontinianum; Nébouzan, Nepotianum; Polignan, Paulinianum; Siradan, Siradanum) eta oraindik ugariago aurki daitezkeela «acus»-tik eratorritakoak: «en el Mediodía y en Bretaña lo son aquellos concluidos en «ac»; en la región de lengua «oil» los terminados en «ay», «-è» o «y»; en el leonesado «-iacum» ha producido «-ieux», en las partes germanizadas «-acum» dio «-ach» y «-iacum» produjo «-ich». Ikusten dugunez, nahiz eta etimo latinoan duten, inguruko hizkuntzaren eraginez bukaera ezberdina gertatu da.

Era berean, aipatzen ditu Katalunyan agertzen diren antzeko izenak, non «Palleja» aipatzerakoan «villa quam dicunt Palaliana» etimotzat dakarkigu. Ots! Ez genitibotik eratorria, «adjetivo femenino posesivo»-tik baizik.

Noizdanikoak ote diren galderari honela erantzuten dio: «No se puede decir esto de manera categórica, aunque su transformación en una aldea compleja, «vicus», parece que comenzó desde finales del siglo III, con las primeras amenazas de invasión bárbara del Norte, pero aún en la época carolingia la estructura territorial de las poblaciones rústicas en general era parecida a la romana». Hitz hauetatik bi gauza ditugu aintzakotzat hartzekoak:

A) Hirugarren mende baino lehenago sortuak direla.

B) IX mende arte «estructura territorial» berdin xamarra zutela herrizka denek, bai «fundi» bai besteek.

Ondoren Arrandiaga aipatzen du esanez, «gain» euskal atzizkia nabarmena dela herri izen batzutan: Agurgain, Amargain, Arruizgain, Atagain, Olagain eta Sorogain. Eta baita ere «a veces ocurre la caída de la «g», sobre todo cuando va entre dos «a» «a», quedando así: Aldain por Aldegain, Erañain, Erlain, Lacain, Layain, Matriain, Obarrain, Otazain, Otsain, Perriain o Zaurriain. Explican estos ejemplos la confusión. Pero si se tiene un poco de perspicacia, no se comprende que un pueblo que muchas veces está en bajo, se le caracterice como «alto» y más como «alto de Mengano» o de «Fulano»

Badakigu jakin «gain» atzizkia dutenak ez direla behean izango. Ez dakigu izen horiek denek atzizkia «gain» dutenentz. Eta atzizkia «gain» ez baldin badute, beren osaera zein izan den ikertzeko dago.

Linguistika arloa utzirik, eta Altadiletik hartuta, herri izenez osaturiko hamar orri bete ditu, herri bakoitzak zenbat etxe eta biztanle dituen zehaztuz. Hauetako bakoitzaren etimo edo lehenbiziko jabeak zuen erromatar izena proposatzen du bakoitzarentzat.

Herri izen zerrenda luze xamarra denez gero, eta benetako etimo ote diren zalantzan uzten bait du gehienetan, ez dugu bera hemen transkribituko. 75 herri dira, denak nafarrak. Denak «fundi» erromatarrak izan balira, erromanizaketa zabaldua izan zen Iruñerrian. Baina zerrendan ez daudenak, zer ziren? «Ain»-ez bukatzen diren beste toponimo denak latinetik al datozkigu? Holako 75 baino gehiago gelditzen bait dira zerrendatik kanpo.

Aipatutako etimo multzoa sailka jartzen du Caro Barojak:

A) «Una pequeña proporción de nombres personales aquitanos y franceses, como Guerin, Centulo y Sembus, de uso frecuente a partir de épocas muy remotas el último, de los siglos VIII-IX los otros dos». (3)

B) «A un periodo aproximado o poco posterior si se quiere, pueden corresponder los nombres de Anderquina, Belasco, Beraxa, García, Laquide, Muño, Sancho, Urdia, Zorraquino, Zuria y Zurico de clara estirpe vasco-navarra». (11)

C) «Pero es mucho mayor la proporción de nombres romanos que descubrimos: Asterius, Aureus, Auricus, Barbatus, Emeterius, Eusebius, Evaristus, Luparius, Macer, Marcellus, Marcus, Marius, Paternus, Sinesius, Urbicus, Valerius, Veranius, Veranianus». (18)

D) «Al lado hay que poner los de estirpe ibérica antigua como Orixo y Equesus». (2)

Guzti honen ondorio Caro Barojak hau erabakitzen du: «Todo esto hace suponer que el origen de dichos lugares hay que buscarlo en la época romana, paralelamente a como en Francia lo han establecido hasta la saciedad historiadores y arqueólogos con respecto a los de nombre parecido».

Ez dugu gaitzetsiko Frantzian gertatu dena, arkeologo eta historialariek «hasta la saciedad» probatu dutenez gero. Baina haiek Frantzian, ez hemen gertatu zena probatu dute, eta Nafarroan gertatua probatu egin beharko dute historialariek, arkeologoek edo Caro Barojak berak, orain arte esan denarekin ez bait dago frogaturik. Aipatzen dituen 75 izenetatik, izen latinoa izan dezaketena 18 besterik ez baldin bada agertzen, izatekotan 18 izan daitezke aintzinako «fundi» erromatarrak. Besteak gerokoak dira eta horregatik beste sorrera bilatu behar zaie ez fundus erromano sorrera.

18 hoiere ere etimo latinoa izan dezaketela argudiatzen du. Baina izen latinoa izatea nahiko arrunta da Euskalerrian erligioaren eraginez. Marcus, Marcellus, Evaristus, Eusebius..., sailduak ditugu, gaur egun giristino izenak ditugun bezalaxe. Hau horrela dela, fundi izan ziren hala ez argitzea historialari eta arkeologoaren gain geratzen da oraingoz.

Hortarako ez zaigu baliagarri duten «estructura física» aipatzea. Caro Barojak berak ere onartzen du inguruko herri denak «estructura» hori antzekoa dutela. Egia da: izan daitezke. Baina ez «ain»-ez bukatzen direnak bakarrik. Iruñerrian Sansoain, Orisoain, Maquirrian eta abarrek, Otxobi, Erize, Zizur, Arre, edo Elkanok duten egitura berdina dute. Behin eta berriro fundi izan zitezkeela ikusten da, besterik ez.

Caro Barojaren lanarekikoa amaituz, guztiz ados gaude «*im*»-ez bukatzen diren herriek «ain» taldekoen artean sartu behar direla, fundus ziren edo ez ziren erabakitzeko, baina garbi dago aintzin agiritan bai «in» bai «ain» bukatuz agertzen dela herri berbera. Eta berandu arte, XIV mende inguru arte, ez dutela atzizki hori finkatuta.

Luis Mitxelenaren iritzia

Luis Mitxelenak Caro Barojaren tesia onartu arren, zertxobait ñabartu egiten du bera, eta gainera ematen dituen iritziak linguistika arloan kokatzen ditu. La-burki azalduz, hauxe dio: «esta interpretación que proporciona un gran número de etimologías completamente satisfactorias, no puede ponerse en duda en cuanto a su corrección, teniendo en cuenta que la dificultad fonética (anu ha dado normalmente -au(n)) se salva admitiendo una pequeña modificación en las ideas de Caro Baroja» («Apellidos vascos», or. 39). Adibide batzuren bitartez, Caro Barojak emandako etimoa egokitzen edo eta zehazten saiatzen da.

Halere Mitxelenak aitortzen du «en apellidos queda con todo un número muy elevado de primer elemento desconocido en -ain y -rai Amundarain, Asiain, Azelain, Cerain, Fuldain, Gabarain, Pildain, (Vildain), Zatarain; también es frecuente -arrain: Baliarrain, Beldarrain, Sorarrain, Zuriarrain etc». Hauek hola garbi dago Caro Barojaren azalpenak ez duela izen guztientzat — abizenentzat batez ere—, Mitxelenak dioenez, balio.

Ondoren M. Lekuona jauna aipatzen du Mitxelenak esanez, ez dagoela ados proposatzen duen azalpenak, alegia «ain» bukatzen diren herri izenak euskal -aren genitibotik eratorriak direla. «Esta hipótesis (Lekuonarena) aparte de ser innecesaria, pues el tipo de nombre que hemos supuesto está ampliamente atestado en las zonas vecinas (y en el mismo País Vasco en los nombres en -ana y -ano que no se pueden explicar por sufijos vascos) y hay toda clase de razones históricas para pensar que pudo introducirse entre nosotros, tropieza con razones fonéticas (reducción a -ain de un sufijo que en lenguaje corriente se ha conservado como -aren hasta nuestros días y palatalización en -ain y con la semántica de que -ain supone el genitivo determinado, es decir provisto del artículo, -aren, cosa difícil de explicar tratándose de antropónimos».

Ikusten denez «aren»-dik «ain»-era murrizketa (reducción) zaila iruditzen zaio Mitxelenari. Beharbada ez litzaioke hain zaila irudituko alderantzizkoa: «ain»-etik «aren»-era, hain zuzen. Baina hori ez omen du esan Lekuonak eta, dirudienez, ezta Mitxelenari ere bururatu.

Bestalde honela dio: «La explicación -ain a partir del genitivo -ani (Caro Barojak proposatzen duena eta gero ikusiko dugunez L. M.^a Muxikak azpimarratu-ko duena) valdría para la Soule, pero no para la Navarra Alta (non aurkitzen diren holako herri izen gehienak), donde desde los primeros testimonios, el resultado único de -ani es -ai, sin rastro de nasalidad». -Ani genitibotik ez datorrela esan arren, nondik datorren ere ez du azaltzen.

Guzti hontaz bere iritzia ematerakoan, Mitxelenak L. Andersen aipatzen du. Honen iritzi -ain, -ein atzizkia ez da latino. «Lo cual, afin de de cuentas, —dio Mitxelenak— es muy defendible». Latinoa ez baldin bada, zer da ba? Caro Barojaren azalpenarekin bat dator Mitxelena, baina hark ematen zuen azalpen linguistikoak ez duela Goñafarrerarako balio esaten du. Bai edo ez? Nongo izenentzat balio du ba?, Zuberukoen bakarrentzat?

Luis M.^a Muxikaren iritzia

Luis M.^a Muxikak Caro Barojaren iritzian finkatuz, eta linguistika ikuspegitik mintzatuz, AIN/EIN/IN atzizkia latinetik zuzen zuzenean datorrela esaten du. Berarentzat -ani genitibotik dator, nahiz eta Frantzian *humain-humanum*, *urbain-urbanum* eta *italien-italianum*, aurki daitezken.

Berarentzat -ain atzizkia -ano gaztelaniaren paralelo edo antzeko da, biak erromantze lege fonetikaren eraginez eratorriak.

Hona hemen berak azaltzen dituen adibideak:

Garitain / Garitano lat. GARITIANUM

Barañain / Barañano lat. VERANIANUM

Amalain / Amillano lat. AEMILIANUM

Lukiain / Lukiano lat. LUCIANUM

ENA/RENA, ordea, «(jabetza adieraziaz) daramaten euskal abizenak edo deiturak, -ANO erromanikoaren gisakoak dira, edo-eta -IZ/EZ genitiboarenak. Euskaraz, beraz, gisa berekoak»- dio Muxikak («Latina eta erromanikoaren eragina euskaraz», or. 244).

Caro Barojaren antzera izen zerrenda aurkezten digu, etimoak zeintzu izan daitezke azalduz. Osoki 27 izenen etimologia.

Iritzi hauen sintesia

Hiru idazle hauen iritziak laburtuz, agertu diren ñabardurak salbu, Caro Baroja, L. Mitxelena eta L. M.^a Muxikaren tesiak hauxe adierazten du:

A) «AIN» atzizkiak bukatzen diren herri izenak patronimiko dira.

B) Izen horiek erromatar garaikoak dira, orduko «fundi» edo «villae» izenak izan zirenak.

C) AIN atzizkia (eta herri izen osoa ere) latin-erromaniko fonetika legearen arabera ohizko eratorketa baten bidez osatua izan da.

Gauzak hain sinpleak ez direla, aipatu ditugun beren testuetan ageri da, baina esaten duten edo ez dutenaren ondorio, aipatu dituzten kontrako beste iritzien aurka, azkenean hiru pauso hoiek adierazten dituen tesia geratzen da.

Jarrera ezberdina dute halere prozesu hontan hiru autore hauek: Caro Baroja (B) puntutik abiatzen da. Beste biak hortan oinarritu beharrean, linguistika arloan ari dira, beren artean eratorketa nolakoa izan den ados ez badaude ere. Azkenean Muxikak -AIN atzizkia «atzizki latinoak» atalean argi eta garbi sartu du.

Emandako iritzi hauetaz gogarte batzu

Nere ustez Nafarroan fundi edo villa izan direla arkeologoen frogatuta dakiagu. Zenbat eta zeintzu izan diren ere, ordea, frogatu egin behar da historialarien laguntzaz. Iker lan hortan filologo edo linguistek lehenbiziko pausoa (susmoa)

edo azkena (erabakia) eman dezakete. Baina historialariek bitarteko bidea betetzen duten bitartean, nahiko ahula gelditzen da filologia aldetik ikusita, «ain»-ez bukatzen diren herriek beren izena latinetik eratorria dutela. Eta ez inola ere frogatua —ain atzizkia, fundi hipotetiko hoiiez gainera beste herri eta toponimo askok duena, latinoak denik eta, areago, -ain atzizkia duten toponimoak fundi erromatarrak izan zirenik.

Caro Barojak 18 eta Luis M.^a Muxikak 27 aipaturako herri izenez gainera, beste izen asko gelditzen zaigu Nafarroan eta Nafarroatik kanpo bukaera -ain dutenak. Haietatik patronimiko erroa askok du dirudienez, baina izen arrunta, toponimo hutsa, beste hain bestek. Nola egokitu -ain atzizkia azken multzo honi latina baldin bada? Fundus erromatar hipotetiko batetik erakarrita?

Caro Barojak aurkitu zituen izen batzu zenbait herri izen azal dezaketenak, baina antolatutako teoria horrekin zenbait gisa hontako toponimo gelditzen zen azalpen gabe, ez zuen beharbada ongi neurtu. Eta «quod nimis probat nihil probat» esan ohi zuten latinoek.

Arkeologoek beren izerdi eta lanei esker probatzen baldin badute halako herrixka bat fundus edo villa izan zela, linguistek ez dute lorpen hori -ain atzizkiarekin nahastu behar, zeren eta argitu baino areago ilundu egingo zaie aurkitu dutena. Ederra da bi txori tiro bakarrez hiltzea, baina gehienetan ezin da txapela batekin bi buru estali. Behar bakoitzak nahiko lana du. Frantzian aurkitu dutena aurkitu egin behar da oraindik hemen.

Ikusi dugunez, erromatar Inperioko beste herrialdeetan, bertako hizkuntzen eraginez izen latinoek eratorrita ezberdinak eman dituzte. Penintsulan erromantzearen eraginez -ano (-anum acusatibotik) edo -ana (-ana femeninotik) eman digute, bai Nafarroan nola Araban eta Bizkaian, herri izen asko honen lekuko. Zergatik, ordea, Nafarroan gehienetan -ain bukaera eman dute? -Ano fundustik eta -ana villatik datozenean, zein eraginez agertu da -ain hori Iruñea inguruan? (ikusi L. Mitxelena (Fontes IV-10 (1972). Bertan M.^a Lourdes Albertos-en lana aipatzen da «Alava prerromana y romana. Estudio lingüístico»).

1963-an Caro Barojak aipatzen du azal dutako bere tesiak nolako harrera izan zuen gai honetaz kezkatuak daudenen artean. Aipamen honek aukera ematen dio berauek esandakotaz luzatzeko eta, era berean, izen batzu fundus erromatarrak baino askoz geroagoak diruditela aitortzeko ere (Belasko edo Garzia Erdiariokoak bait dira).

Caro Baroja, bere lan ugariak lekuko, beti saiatu da oreka zientifikoan hitz egiten eta, horregatik, inor baino haserreago azaltzen da «españolistak» edo «vasquistak» zerbait defenditzearren sendimendu arrazoiez baliatzen baldin badira. Oreka zientifiko horrek zientzia gizona adierazten du eta behar beharrezkoa zaigu oreka hori, egia, historia eta kultura sakondu eta argitu nahi baditugu. Halere gure gai honetan antropologia edo historia arrazoiak gainera, linguistika arrazoiak ere guztiz kontutan hartzekoak dira. Arlo honetaz honela mintzatzen zaigu Caro Baroja: «Es una lástima que sepamos tan poco del vascuence de una zona de contactos tan varios como esta de que venimos hablando» (Or. 204) ¹.

Hor dago gakoak hain gutxi jakin izana. Hutsune hori bete nahirik lurralde hontako euskarataz datu batzu azaldu nahi genituzke.

1. «Sobre la religión antigua y el calendario del País Vasco». Txertoa. 1973. Hemen Caro Barojak «Revista de Dialectología y tradiciones populares» n.º 25 (1963) azal dutako lana jasotzen.

Fonologia diakronika.

Antroponimo edo toponimo batek zer esan nahi duen ikusteko, arriskutsu xamar da orain duen fonetikaz zuzen zuzenean itzultzea. Hizkuntz denetan eta euskaran batez ere, laburdura ugari izaten da toponimoetan eta hauen sustraia non den zehaztu egin behar dugu beren esanahia azaldu baino lehen.

Hauek honela etimo zein den jakiteko, atzera jo behar dugu agiriz agiri ikerketa eginez, zenbat eta urrutiago hobe, ahal balitz bere sorreraino, izen bakoitzak zein eboluzio izan duen azaldu ahal izateko. Caro Barojak orain *Catalain* den herriaren izena Catellius hitz latinoatik eratorritzat ematen duena, Ricardo Ciervide jauna Leireko Monastegiko agiriak aztertuz, hauetan «Calatain» azaltzen dela jabetu da; beraz hau izanik lehen idatzitako agiritan agertzen den izena, badirudi bere etimoa ez dela Catellius latinoan. (Fontes VIII-23 (1276) or. 262).

IX mendetik hona -ain atzizkiak bukatzen diren herri nagusien aztarnak Leire eta Olivako agirien bitartez bila ditzakegu. Ricardo Ciervide, A. Martin Duque eta J. A. Munita jaunek azken urte hauetan argitaratu dituzten beren liburuetan, bi monastegi hauetako izen zerrenda polita eskeini digute. Zerrenda luzea eta argia denez gero, orden alfabetikoz osatuta, adibide batzu besterik ez dut hartuko aintzin idazkerak holako herri izenak nola jaso zituen erakusteko.

Badostain: Badoçtain, Badoztain, Badoztan, Badozteng, Uadoztain, Vadoztain.

Cemborain: Ceporain, Zemborain.

Cembozain: Zembozain, Cepozain.

Garciriain: Garzariein, Garzarin.

Guendulain: Ganduleng, Gentulain, Guentulain, Getulain.

Idocin: Idozen, Idozing, Ydocien, Idoziain.

Larrasoaña: Larrasoain, Larrasoayn, Larresoaing, Larresoin, Larresoina.

Lizasoain: Liçassoain, Liçassoayn, Lizasoang, Lizassoain.

Marcalain: Marchelain, Markelain, Marqualain, Marquelain, Marquelayn.

Sansoain: Sansoaing, Sansoang, Sanssoan.

Sansomain: Sansomanc, Sansumain, Sansumayn.

Zoroquiain: Zorochian.

Zuñiga: Beztunica, Buztunica, Eztuniga.

(Documentación medieval de Leire, siglos IX a XII», Angel Martin Duque. Príncipe de Viana. Pamplona 1983).

Aizoain: Ayçayn.

Astrain: Azterayn.

Champaña: Chanpana, Champanna, Campaina, Champania, Champayna, Champanya.

(«Libro Becerro del Monasterio de Sta. María de la Oliva, 1132/1500. J. A. Munita. Eusko Ikaskuntza, San Sebastian 1984).

Adibide hauetatik, eta besteak antzekoak bait dira, «ain» atzizkiaren ezaugarri batzu aipa ditzakegu:

A) Zuñiga herri izenaren laburdura dakargu, eta Sansoain Artaxonako toponimoarekin orain osa dezakegu, horrelako laburdurak maiz gertatzen direla azaltzeko: «Sausain (s. XVIII), con las variantes de Sagusain, Sabusain, rara vez Subisain en la misma centuria. Desde fines del s. XIX ha cristalizado en el nombre actual: Sansoain» (J. M. Jimeno Jurío, «El euskera en la toponimia de Artaxona». Fontes 1-3 (1969)).

B) Ain/ein/in hiru bukaerak agertzen dira herri beraren izenean.

C) Hauetaz gain agertzen diren beste idazkerak atzizkiak hizkeran zuen palatalizazioa adierazten dute: -eng, -aing, -ayn, -ang, -ing, -anc.

D) Champaña: honen ahozkeraren fonetikoaren ezaguna zaigu. Halere erromantzez idatzitako agirietan ahozkeraren honek oso idazkeraren ezberdina du hauetako bakoitzean.

Palatalizazioaren ahozkeraren berak hainbeste idazkeraren ezberdin izateak, azaltzen du soinua bera idatziz azaltzeko izan zen zailtasuna, hizkeraren eta idazkeraren ez bait dira gehienetan biak batera ibiltzen. Areago herriaren ahozkeraren eskolatutako idazkariak idazten duenean. Eta areago ere hiztunaren hizkuntza idazkariarentzat arrotz denean, eta agiriak latinez edo erromantzez idatzirik ditugu. Erdiaroan Nafarroan «ain» latinoa izan beharrean, euskal atzizkia izatea adieraziko ligukeen honek izan zuen zailtasuna idazlearentzat.

Azken azalduko hau, Mitxelena-ren hitz hauek azpimarra dezakete: «Se diría que, al no pesar sobre el escribano las tradiciones vigentes en Navarra, éste ha sido más fiel a veces a la pronunciación real que a la norma escrita» (Fontes I-1 (1969), or. 53). Denok dakigu euskeran ez dela idazkeraren araurik (norma) izan berriro arte eta honek hizkuntza finkatzerakoan sortu dituen atzerapenak nolakoak izan diren.

Bestalde, nahiz eta idazkeraren finkaturik ez izan, mendetan zehar ahozkeraren berak iraun izateak adierazten digu herriak oso garbi zuela ahozkeraren hori, -ain/-ein/-in era ezberdinetan erabili izan arren gaur arte. «Ain» latin sufijoa ez baizik euskal atzizkia izatea, izango litzateke duela ehun urte, Iruñerrian euskara galdu zen arte, bertako euskeran «ain» atzizkiaren erabilpenaren arrazoia.

«Ain»-ez bukatzen diren toponimoen hedadura

Banan banan zehaztu beharko liratekeen Eleizalde jaunak RIEV-en argitaratu zuen toponimo zerrendaz baliatzen naiz, «ain» atzizkiaren bukatzen diren herriak zein hedadura duten azaltzeko.

Eleizalde jaunak egindako zerrendatik nafar izenik ez dut hartu zerrenda luza ez dadin. Ezta abizenik ere. Jakina, euskal abizenak gehienean herri edo jaiotetxe izenak dira. Baina toponimoak beren lekuetan azaltzeak, zuzen zuzenean duten hedadurara garamatza. Eta historian sakontzea, eta agirietan izan duten aldaketa ikustea, baita ere argi izan lekuak zein eboluzio izan duten jakiteko. Ez da azken hau lantxo honen asmoa.

Abitain: Caserio de Azpeitia.

Agurain: Nombre primitivo de Salvatierra de Alava según el C.S.M.; el nombre de Salvatierra data de 1256.

Akain: Caserio de Arrona.

Akutain (Azpiko eta Garaikoa): Caserios de Idiazabal.

Alasain: Caserio de Ezkioga.

Alkain: Caserio de Gabiria.

Amasarain: Caserio de Donostia.

Andoain: Caserio de Tolosa.

Andoyain (doc. Andiaín): Nombre con el que aparece en el C.S.M. el pueblo de Andoin (Alava).

- Aintziain: Regato de Orendain (Gip.)
 Arain: Caserio de Oyarzun.
 Araingibel: Caserio de Oyarzun.
 Arakistain: Caserio de Deba.
 Arbestain: Caserio de Aya.
 Arlabain: Caserio de Azpeitia.
 Arsain: Caserio de Motrico.
 Artasogain: Monte de Aranzazu.
 Artzain: Caserio de Zumaya.
 Artzarain: Regato de Motrico.
 Beain (Andikoa eta Hemendikoa): Caserios de Urretxu.
 Beguiristain (Andi y Txiki): Caserio de Alegria (Gip.).
 Beldarrain: Caserio de Aya.
 Berrain: Caserio de Ataun.
 Peretxin o Beretxin o Aperetxin o Beretxuain o Aperetxuain.
 Betalain: Heredad de Ulibarri. Arratzua.
 Biain Erdikoa: Caserio de Oñate.
 Gaintzarain: Caserio de Beasain.
 Galbarain: Monte de Gojain (Alava).
 Galdarain: Término de Ortuella.
 Galtzarain (Adi y Txiki): Caserios de Beasain.
 Gaztain: Oyarzun.
 Gojain: Legutiano (Alava, aparece en catálogo de S. Millán S. X. con el nombre de Goyahen.
 Goxainea o Gozain: Casa de Sara (Lab.).
 Gurenain: Término de Barrundia (Alava).
 Ialarrain: Monte de Zegama.
 Igarain: Caserio de Zarauz.
 Izurain: Caserio de Leaburu (Gip.).
 Katain: Caserio de Azpeitia.
 Katarain: Caserio de Gabiria.
 Kirimain: Manzanal de Bergara.
 Laurgain: Caserio de Aya.
 Leasain: Caserio de Astigarreta (Gip.).
 Legargain: Casa de Zizurkil.
 Loistarain: Caserio de Donostia.
 Main: Monte de Oyarzun.
 Makurrain: Monte de Oyarzun.
 Markelain: Caserio de Oyarzun.
 Ortonzin: Caserio de Zigoitia (Alava).
 Osinarain: Castañar de Albistur (Gip.).
 Otain: Heredad de Elosua (Gip.).
 Otsain: Regato del Ernio (Gip.).
 Otsarain: Sembrado de Albistur (Gip.).
 Onusain: Caserio de Zarauz.
 Polain: Heredad de Ijona (Alava).

(RIEV. Año 16. Tomo XIII n.º2 eta urrengoak. LUIS ELEIZALDE).

Zerrenda hontan ikusten da, hedadura honek Gipuzkoan zehar nolako ugari-

tasuna eta zabalera duen; Araban banaka batzu eta Bizkaian «ain» toponimo gutxi azaltzen da. Eleizalde jaunak ematen duen zerrendan ez bait daude «ain»-ez bukatzen diren izen guztiak, herrialde bakoitzean zenbat den ez dut azalduko hemen.

Halere Euskalerrian hedadura zenbatekoa den ikusteko nahikoak dira azaldu-takoak. Beraz, «gain» atzizkiaz, edo honen ondorio diren beste adibideak salbu, hauen euskal eratorjeta onetsirik bait dago, gainerako denak «fundus erromatar-rrak» al ziren? Latinetik al datozkigu izen hoiek ere? Caro Baroja eta Luis M.^a Muxikak Nafarroan latinetik eratorritzat emandako herri izenekiko alderik ba al da beste izen hauetan? Auzitan dabilkigun «ain» atzizki honen hedadura hau dela ikusirik, dagokien azalpena ere bera osatzen duten izen guztientzat bilatu behar da. Horrela ez egiteak, emandako azalpena ez dela benetakoa adieraziko luke. Batzuentzat ona dena, denetzat behar luke on.

Hala berean, nik ez aipatu arren, Eleizalde jaunak osatutako zerrendan azaltzen dira «-rena/-ena» atzizkiz bukatutako izen berdintsuak, denoi oso eza-gun zaizkigunak. Adibidez: Galbarain / Galbarrena, eta antzekoak. Beren sorrera berdintsua litekeela somarazten dute.

Azkenik, kontutan izatekoa da, zerrendan herri izen ale batzuren artean, ba-serri askorena, erreka, mendi eta leku izenak ere azaltzen direla.


«Ain»-ez bukatzen diren herriak Nafarroan

Nafarroan dauden toponimoei dagokienez, Leoncio Urabayenek mapa bitar-tez azaldu zuen, beren izen bukaera «ain» atzizkiaz duten herri gehienak Iruñea inguruan kokaturik daudela. Mapatxo xehean margotu zuen multzo handiena da-goen lurraldea, eta toponimoaz gain, 66 herri dago inguru hortan beren izena «ain» atzizkiz bukatzen zaiena (irudian ikusi).

Hauexek dira: «Acotain, Ainzoain, Amatriain, Amocain, Andricain, Ansoain, Artariain, Asiain, Astrain, Badostain, Bailariain, Barañain, Barasoain, Barbatrain, Bariain, Beasoain, Belascoain, Berasain, Beriain, Burutain, Cemborain, Equi-soain, Erdozain, Eristain, Esain, Etulain, Gardalain, Garinoain, Garisoain, Gar-zariain, Guendulain (Esteribar), Guendulain (Zizur), Guerendiain (Elorz), Gue-rendiain (Ulzama), Guerguetain, Ilundain, Inmarcoain, Indurain, Laquidain, Lar-rain, Lepuzain, Lizaosain, Lizoain, Maquirriain (Ezkabarte), Maquirriain (Leoz), Marcalain, Muniain (Guesalaz), Muru Astrian, Noain, Orendain, Oricain, Ori-soain, Osacain, Paternain, Ripa Guendulain, Sansoain, Sansoain (Urraul Bajo), Sansomain, Senosiain, Setuain, Urbicain, Aquiturriain, Zoroquiain, Zuriain, y Urrizola Galain».

Bere harridura azalduz, honela dio Urabayenek: «Quede ahora a cargo de los filólogos la explicación de este hecho geográfico. Por qué los nombres de pue-blos terminados en ain se localizan en una zona determinada y no dispersa de Navarra y sólo en Navarra? (RIEV 16. Or 150).

Beste mapa, eta Urabayenena baino askoz zehatzagoa egin zuena, Luis Lucia-no Bonaparte dugu. Mapa hau da, mendea igaro arren, euskalkiak azaltzeko du-gun onena. Eta bertan ikusten da Urabayenek ilun margotutako lurraldea dela,



Extensión geográfica en Navarra de los nombres de pueblos terminados en *-ain*.


gutxi gora bera, Bonapartek Hegoaldeko Goinafarrera deitu zuen euskalkia hitz egiten den lurraldeari dagokiona.

Lehenago hedaduraren zabaltasuna ikusi dugu, orain mapa hauen bitartez trinkotasuna non dagoen ere, argi ikusten da. Beraz hau ez ote litzateke izango giltzarria? Lurralde hontako euskalkia ez al liteke izan «ain» atzizkiaren hedadura eta trinkotasuna lotzen dituen giltzarria?

Hegoaldeko Goinafarrera euskalkiaren «ain» atzizkia

Fonetika diakronika bitartez, toponimoetan agertzen den «ain» atzizkia nolako zen aztertu dugu. Hegoaldeko Goinafarrera euskalkian azaltzen den «ain» atzizkia nolakoa den aztertzen saiatuko gara orain. Hortarako «Lexico comparativo de los subdialectos de Elkano, Puente la Reina, Olza y Goñi. Recogido por el Príncipe Luis Luciano Bonaparte». (del doc. n.º 48 del Catálogo de C. González Echegaray), recogido por Francisco Ondarra. (Fontes XIV n.º 39 (1982)) erabiliko dugu. Morfologiari dagokion atalean, herri hauetako euskalkietan genitiboa nola erabili izan den ikusten da. Hontatik hasiko gara. Fontes aldizkarian dagoen bezala azalduko dugu:

10. gizonen; gizonain; gizonen/ gizonen; gizonan; gizonen: Puente, Olza y Goñi.
Gizonenganik, gizonain, etc./gizonen gandik, gizonan, etc.: Puente, Olza, Goñi.
Gizonen gana; gizonain; gizonen: Elkano/ gizonen g.; gizonan; gizonen: Puente, Olza, Goñi.
Pedroin gana; Martinen gana: Elkano/ Pedron gana; Martinen gan: Puente, Olza, Goñi.
Pedroin baitan; Martinen b.: Elkano/ Pedro b.; Martinen b./ Pedron Baiten; Martinen Baiten: Olza, goñi.
Gizonen b.; gizonan b.; gizonen b.: en todas partes.
Gizoneki; gizonareki; gizoneki/ gizonekin; gizonarekin; gizonekin; gizoneki; gizonaki; gizoneki gizoneki; gizonareki; gizoneki.
Pedroreki; Martineki/ Pedrorekin; Martinekin.
Gizonendako; gizonaindako/ gizonendako; gizonandako: Puente, Olza y Goñi.
11. Gizonendako: en todas partes.
Lurrendako; larraindako/ lurrendako; lurrandako/ lurrendako; lurrendako (sic), (oyanandako) (sic): Olza y Goñi.
Lurrendako: Elkano y Puente/ (oyanandako) lurrendako: Olza y Goñi.
Pedroinganako; Martinenganako/ Pedron ganako; Martinenganako: Puente, Olza y Goñi.
Gizonen g.; gizonain; -en/ gizonen g.; gizonan; -en: Puente, Olza y Goñi.
Pedroin: gizonen; gizonen X ontz X/ pedrona; (ut supra lo demás) Puente, Olza y Goñi.
Idien; idiaín; idien/ idin; idian; idien/ idien; idien; idien: Olza y Goñi.
12. Semen; semeain; semen/ semen; semeain; semen: Puente, Olza y Goñi.
Alaben; alabain; alaben/ alaben; alaban; alaben: Puente, Olza y Goñi.



- Pedroin gatik; Martinen g./ Pedron g.; Martinen g.: Puente, Olza y Goñi.
 Gizonen g.; gizonain; gizonen / gizonen; gizonan; gizonen: Puente, Olza y Goñi.
13. Mayain gañan dago/ Mayan gañan/ gañen: Olza y Goñi.
 Mayain gañera ian da: en todas partes.
 Maian ganetik/ -gañetik: Puente y Olza.
 Herriain barnean dago/ herrian barrenean/ barnean/ barnen.
 Herriain barnera joan da/ herrian barrenera/ barnera: Olza y Goñi.
 Herriain barnetik etor da/ barrenetik/ barnetik: Olza y Goñi.
21. Zeñain ogia baita/ zeinan ogia baita/ zeinan ogie baita: Olza y Goñi.
 Zeñain ogia den/ zeñan ogia den/ zeñan ogie den: Olza y Goñi.
 Zeñaina den ogia/ zeñana den ogia/ zeñana den ogie: Olza y Goñi.
 Zeñen ogia baita: Elkano y Puente/ zeñen ogie den: Olza y Goñi.
 Zeñena den ogia/ zenena den ogia/ zeñena den ogie: Olza y Goñi.
25. Bezain (con signo de exclamación)/ bejain= tan como: Puente (y Olza?)/ bezein: Goñi.

Bonapartek Elkano, Puente la Reina, Olza eta Goñin hitz bakoitza deklinabidean zehar aztertuz egindako lanak, hitzunen ahozkerara jasoaz egindako lan zehatza, argi eta garbi azaltzen du aipatu dugun lurralde hontan mugagabe, mugatu bakuna edo mugatu singularra, eta pluralak nola izen berezi hala arruntetan, kontsonantez edo bokalez bukatzen diren hitzetan, euskara batuan erabiltzen den -aren genitiboak zein ahozkerara izan duen herri hauetako bakoitzean. Eta oso nabarmen ageri da Elkanon, mugatu singularrean beti, hitz guztien kasu guztietan, -ain izan dela bukaera.

Beste hiru herrietan berriz -ain atzikia -an, -n, -en bihurtu da, oraindik ere beste euskal lurralde askotan herri mintzakeran hitzunen ahozkeran bizirik dagoen genitibo eran. Hala ere, kasu batzutan, lau herrietan -ain gorde egin da («mayain gainera ian da: en todas partes»). Eta kasu berezi batzutan mugagabean -ain hori, -in bihurtu da Puenten: «idin». Bestalde Bonapartek bere ikerlana egin zuenean, artean euskara hitz egiten zen lurralde hontan, Puente da Lizarrako lurraldetik urbillen kokaturik dagoen herria. Eta Lizarra lurraldean daude hain zuzen, «-in»-en bukatzen diren herri izenak.

«Ain» atzikiaren azterketa fonetikoa

Azentua aldetik Mitxelenak (Fontes VIII-23 (1976), or. 154) diona azalduko dugu: «El sufijo -(r)en de genitivo se escribía con acento en singular y en plural (Aitarén, Aitaréna, gurutzearén, pl. judioén), pero no en la declinación indeterminada: bi gizónen «de dos hombre». Es perfectamente natural que el sufijo que forme derivados atraiga el acento: la forma determinada tiene que ser -(r)éna, de donde -(r)én. O, en forma más popular -aina (-arena), acentuado sin duda -áina, en singular. Salacenco -arna».

Mitxelenak berak aipatutako artikuluan *laburduraz* honela dio: «Puesto que se han mencionado fenómenos de síncope y características del Alto Navarro y que

alcanza probablemente un máximo en salacenco, no parece desencaminado pensar que el tipo de acento de que venimos hablando por su naturaleza y también por su posición haya podido ser un factor condicionante. Pero el hecho es que no es sencillo encontrar las reglas que pudieran relacionar entre sí los hechos de síncope con la posición del acento» (ibid. or. 155).

Palatalizaketari buruz Ana M.^a Echaidek hau azaltzen du Nafarroari dagokionez: «l» «n» finales precedidas de «i» semivocálica, «en Navarra palatalizan en general al Oeste del valle de Esteribar salvo en la zona de Olazagutia, Huarte Arquil, Irañeta, en la de Betelu, Lecumberri, Lezaeta y en la de Zubieta, Ituren, Donamaria». (Fontes, VIII-23 (1976), or. 169). Palatalizaketarik ez den lurralde hauetan «ain» toponimoak ere oso urri dira.

Ikusi dugu «ain» atzizkiz bukatzen diren herri izenetan atzizki horren ezaugarri diren laburdura eta palatalizazioa. Orain Bonaparteren eskutik, eta honek egindako euskalki sailkapenean argi ageri da, Hegoaldeko Goinafarrera deitu zuen euskalkiak «ain» atzizkian laburdura eta palatalizaketa ezaugarri berak dituela ikusi dugu.

Besterik gabe esan dezakegu bai agirietan azaltzen den «ain» bukaera, bai Hegoaldeko Goinafarrera euskalkian genitiboan azaltzen dena, atzizki bera direla.

Halere beste agiri batzutataz baliatuko gara hauetan aurkituko dugun «ain» atzizkiaren erabilkera euskalki honen lekuko izan dadin.

Joaquín Lizarraga Elkanokoa (1748-1835)

Bonaparteren adibideaz gainera beste batzu azaltzea baita gure helburua, orain Joaquín Lizarraga Elkanokoaren idatzi batzuz baliatuko gara hortarako. Honek euskal genitiboa bere idaztietan bai -aren, bai -ain erataraz erabiltzen du. Guk -ain atzizkia dutenak besterik ez dugu jasoko.

0-55 lurraín ondarrean edo biotzean

II-21 claroágo ta gure naturaleain confórme dire gauza criatutuénac.

160 ascotan ezin joánes elúrraín útses.

(«Doctrina Christioarén Cathéchima», Príncipe de Viana, Iruñea. 1979)

«...emán Jangoicoari gráciac bere beneficio guciés, ta ofrecitu bere persóna, bere gorpútza ta arima, poténciac ta sentidoac, bere pensamentuác, itzac, óbrac, lánac ta gauza guciac egungartácoac, ta vici gucicoac Jangoicoari *berain* zerbitzu ta agradotán».

(«Praxis Vivendi agriculturalum», Fontes VII-19 (1975) or. 96)

«Ain» erabilpenaren lekuko adibide hauek nahikoak dira gere ustez. Halere aitortu beharra dago, «ain» erabilpen idatzia urria dela. Hiru sermoitan, aipatu ditugun adibide hauek besterik ez. Badirudi idazterakoan -aren genitibo era eskolatua aukeratu duela, baina hala berean -ain ixuria nabari zaio. Dударик ez herri hizkeraren eraginez.

Lizarraga Elkano bere jaioterriko erretore bait zen, argi dago bere jatorrizko hizkera hemengo euskalkia izan zela eta, beraz, genitiboa «ain». «-Aren» aldiz, bere ikasketa bidez jaso. Eta sermoietarako egokiago zerizkiona, batez ere idazterakoan. Nola ahozkatzen ote zuen? Denok dakigu bai euskeran, bai beste edozein hizkuntzetan, idazkera eta ahozkeraren artean dagoen aldea. Idazterakoan hizkuntza kulta nagusi eta mintzatzerakoan herrikoa.

Badakigu baita ere apaiz eta eskolatutako beste hainbaten idaz lanetan –aren era dela nagusi nahiz berak hemengoak izan. Baina gure tesia sendotuko duten beste idatzi batzu azalduko ditugu herri hizkuntzaren erabilpenaren lekuko dakizkigunak.

Mezquirizko euskara

On Joxe Migel Barandiaranek Etnologiari buruz eraturako inkestan, Joxe Mari Satrustegik erantzun hauek jaso zituen Mezquiritzen 1905. urtean jaio eta luzaroan bertan bizi izan den Perpetua Saragueta andrearen ahotik.

Nahiz eskolatua eta egunkari eta aldizkarietan artikulua ugari idatzi izan, elkarrizketa hontan Mezquirizko euskeran mintzatzen da. Idazketa aldetik, Joxe Mari Satrustegik dionez, «interesa atenernos estrictamente a las formas espontáneas del habla popular y transcribirlas con la mayor fidelidad, al margen del rigor académico».

Satrustegi berak erabilitako zenbakiaz baliatuko gara.

1. Nere erriain.
2. Bide berriaren eskubitik.
3. Txakurren iturri
bat erriain erdian
Useñ-erreka
4. Beatza eraztunaikin.
9. Bordak: dozena erdi bat borda bada mendian: Bentarraina, Ziziliaina, Adamena, Paskualena, Apesuieina eta Antorena. Zizilieineko bordaldea.
10. Orai esniaikin bizi dire.
13. Elizeindako
errekain gañeko aldean.
16. Diputacioaren laguntzarekin
haur ttikienaikin iten zuten lo
neska guziok ere beraikin
Mutikoeinian
bagoaikin eginiko ohol zabalak.
22. Laratzain inguruen pasatzen ze.
35. Txakur beltzaren larrue behar zue, ez zue balio zuriainak.
40. Txingar urine ta bildotsaine ibiltzen ze
Olio xorta bat nahasirik bilgorraikin
42. Txitxirioain saldaikin iten ze zopa.
44. Aitain onduen amatxi.
46. Ameriketaik etorri ziren amain bi anaia.
48. Patata tortillan, jamonaina
perrexilarekin.
50. Pentekoste besperain bespera baru iten ze.
52. Ogi pikorrain irinakin.
53. Endaia edo enodoriarekin biltzen ze brasa
pala haundiarekin bildu.
55. Oromaiaren olak
oromaiaren tapa.

56. Bakoitzaindako berie
Aitaindako uzten ziote
Trinidad etortzearekin.
59. Arto irinaikin
Ogiam labien egiten zire
hiru tirarekin.
60. Tripotaikin
txingarraikin
Txistorraikin.
61. Odolain loditasuna
baratxuriaikin gordetzen ze
Iretzieikin erretzen ziote
ur beruaikin.
62. Magrain partez.
63. Aitein sortu etxera bai eta ere amatxin eta aitetxin sortu etxetara, eta
osaba izebein etxetara.
66. Amaikin joaten giñe biltzera.
67. Arrotziekin tortillan iaten dire.
68. Menta belarraikin egosi behar dire
Ajuarrieroindako arront onak dire.
70. Nik bi eskuekin eta ahoaikin ateratzen nituen
Bortz hortzaikin (tenedor) ere bai
Magraikin atera.
76. Etxeren batean.
84. Aitaren altzinean etzue fumatzen
87. Errian erdian
hotzaren makinak.
91. Atorrak, bai andrainak eta gizonainak
Ardiaín ileakin iten zue haria
gizonen galtzoñendako
Emakumien galtzoñek telaikin iten zire.
92. Minaindako bakarrik erematen zue gerrikoa
irabazitako sosaikin anaiei pantalonak erosteko.
96. Amaren ustez
kamamilaikin.
97. Ezkonduen eta neska artean
zahi uraikin garbitu zuriago egoteko
guregatik.
98. Orraixiain matirelekoa izaten ze.
99. Orain reumaindako.
100. Karmengo Ama birjinaren eskapularioa.
103. Polillaindako alkanfor.
104. Lastua artuaña izeten ze
Merino ze Iruña aldeko ardiena
Almadrakain gañan larrie
ardi illekin egine.
105. Aitañarreba, amaiñarreba.
106. Bataioan hurrein aitatxi izeten dire:
1) Haurrain aiteiñ aite eta amain ama.
2) Aiteiñ ama eta amaiñ aita.

3) Aitaren anaia zaharreña, eta amaren ahizpa zarreña.

Dolua. Senarrare beti erematen du alargunak. Aiteña eta amaiña bortz urte terdi. Anaiena urte bat. Haur txikiendako doluik ez ze.

Lizarragarekin gonbaraturik, erabat aldaturik bien arteko erabilkera: honengan –aren nagusi den bezalaxe, Perpetua Saraguetarengan –ain da gailen.

Luzaideko harotz baten diru kontuak (XIX mendea)

Joxe Mari Satrustegik (Fontes I–2 (1969) or. 133) azaldutako Luzaideko harotz baten diru kontuak ditugu tesi honen beste adibide. Nahiz Bonapartek Luzaideko hizkera sartaldeko Behenafarrera euskalkitzat eman, euskalki honek dituen ezaugarrietan finkaturik, orain azalduko dugun Luzaideko agiri hontan argi ageri da, gu aztertzen ari garen «ain» atzizkiaren erabilkera oso nabarmena dela Hegoaldeko Goinafarreran bezalaxe.

Harotz honen idazkera bidez, ezagun da bera ez dela eskolatua, ez duela arretarik jartzen idazterakoan, baizik erabat berea duen hizkera mintzatuan egiten duela idatzi ere. Alde hortatik herri mintzakeraren lekuko bikaina dugu.

Bere eskuarterako egin dituen diru kontuak dira. Bertan bai izen berezia, bai arrunta ugari da. Guztietan «ain» atzizkia erabili du. Hau oso adierazgarri zaigu euskalki hontan «ain» atzizki hau izen berezietan ere genitiboan erabili izan den ezaugarri. Izen berezietako genitiboa azaltzeko baliagarri bait da, antroponimoak osatzeko ere «ain» atzizkia baliagarri dela argi utzi nahirik, gure beste adibide azaltzen dugun agiri hontan diren izenak, bi zerrendatan banatu ditugu: arruntak eta bereziak.

a) : *Izen arrunten zerrenda:*

1. Mutil zaarain.
- 2b. Arguniain condia.
4. Carroin iziac.
- 4b. Amar leyoin burdinac.
7. Beorain lau ferra.
10. Nabarrain gatina lau mail berri.
12. Muricoïn bat ausiric arriñaturic.
15. Arneico serorain condia.
16. Yuanes surguinaineco berñaten condia.
- 16b. Beorain bi ferra
beorain lau ferra
beorain laupa
beorain lau ferra.
17. Errekaldeingo condia.
- 17b. Carruai bi burdina.
21. Partadera bat gonzaïquin.
21. Egui zaara echiain arriñazi paratia.
22. Yornalaindeco
archari bordain eiteco
errezibitia archainganic diuria

- mosoingani(c) diuria arranda.
 22b. unayaingo esquerrain condia.
 54. azaruain 8 qlumentein z. 16
 eiarazainiain condia.
 65b. orchaiseneco semiaina iru aari.
 70. buruilian einic condia 2 ciarazainaiquin.
 71b. Idi erreferra bat carroin iziac zamariai(n)ac 8.
 90. echiain izulzen iru egun
 gaztainen artiquizian.
 107b. Yuanes surginain semiac.
 110b. Eiaraco condia ayaziai(n) undarrian asia.
 114. manduain erostea(n) diuria.
 117. barberainborda zorra.
 126. gabierrec mutilaiquin 2.
 b). *Izen bereziak.*
 iij. beñate condia.
 2b. antonioingo condia.
 4b. Barberain bordaco martine(n) condia
 Beñardoin aferna.
 5. madarch-manesen condia.
 7. Bernateneco condia.
 10. istebeineco condia.
 11. lasarraineco condia
 Dorrayen condia.
 12. Miquelaingo condia.
 13. Martinoingo condia.
 14. Martinengo condia.
 15b. Amecaineco condia.
 17. Errekaldeingo condia.
 17b. Marzelinoi condia.
 19b. doraico pelloin condia.
 20. Tipituaingo condia.
 21. yua(n) padramuineco condia
 inasioineco pitral
 padramuñoineco condia.
 23. Achuaineco condia.
 26. manez mozain emaztia.
 27b. predotuaingo condia.
 38b. zuaindico condia
 40. Ozaldein condia.
 41. Achuaingo condia.
 43. Mutilain condia
 errecaldein condia.
 44. seiainneco condia.
 52b. eiarazainain condia.
 54. qlumentein condia.
 59b. Anchurizen condia.
 61. Marcelinore(n) condia.
 65. orchaiseneco condia.
 67. yanpiarreineco condia.

70. unayaineco condia.
 72b. yuanes biscarrequain condia.
 73b. Antonion ne(co) condia.
 82. pedromariin condia.
 83b. Madarichen condia.
 85b. closqueruain condia
 closqueroin condia
 echein condia.
 86. cheiain condia.
 90. burusurin condia.
 90b. predotuaineco condia.
 91b. puticoineco bi aizur(r) agoyoric.
 94b. burusuriin condia.
 97. yulanainco zurguina.
 112b. rezibido de pelloinea francos.
 128b. Muricoineco condia.
 131. olloteneco piarein condia.
 132. Lapurdin condia.
 133. Magraineco condia.
 vb. totain andregaiac.

Luzaideko arotzaren kontu zerrendak argi utzi du genitiboak «-ain» erabilke-
 ra duela eremu hartako euskal hiztunen artean. Izen horiek berak, Nafarroatik at
 beste lurralde euskaldunetan «-ren» bukatuko lirateke:

- 4b. Barberen bordako.
 7. Beñardoren aferna.
 17b, 61. Marzelinoren(a).
 19b. Pelloren(a).
 43. Mutilaren(a).
 54. Klementeren(a).
 72b. Biskarrekoaren(a).
 82. Pedromariren(a).

Parekidetasun bera dago Ansoain/Ansorena; Belaskoain/Belaskorena; Gen-
 dulain/Gendularena; Makirriain/Makirriarena; Markalain/Markalarena, eta abar.

AIN atzizkia Baztango hizkeran

«Baztango euskalkiaz (I). Bruno Echeniquek egindako itzulpenak Bonaparte-
 ren eskakizunez», Pello Salaburuk argitaratutako liburuan, Etxenikek genitibo
 singularrean, «-ren» atzizkiaren ordeztu, beti «-ain» atzizkia idatzi zuen izen arrun-
 tetan; «-en» atzizkia aldiz, beti pluralean. Liburu hau San Mateoren Ebangelioak
 eta Bibliako beste zati batzuk osaturik dago.

Berreundik gora orri bait ditu, bertan azaltzen diren «ain»-ez bukatzen diren
 genitibo guztiak ez ditzakegu hemen aipa. Egokiago dēritzogu noiz eta nola era-
 biltzen duen azaltzeko adibide batzu aukeratu.

A) «-Ain» genitiboak dieresiz idatzi zuen. Aldiz hizkeran ahozkeraren arrunta
 «ai» denean (zaitut, artzain, aice, nai, naiz etab.), ez zuen dieresis erabili. Diere-

siz idazkera hau ageri da baita ere datiboko «-ri» atzizkiari dagokionetan «r» galduz (Yaunī, ciudadeaī, portaleaī, etab.). Moduzkoetan «-larik» ordez «-laico» dugu («r» gabe alegia) eta beraz dieresekin idatzita (nitzelaic, ciolaic, aituic -honek lehenengo silaba «d» izkia ere galdu du- etab.). Aditz lagunetan ere «r» gabe eta dieresiz idatzi du (errespondituic, urbilduic). Etxeniken idazkera honek bide ematen digu «-ain» genitiboan ere «r» izkia galdu egin dela uste izateko.

B) Izen propioetan agertzen da (Yaunaīn, Yangoicoaīn, Mariaīn, Jesucristoīn, Izpiritu Sainduaīn, Cebedeoīn, Pedroīn, Alpheoīn, Baustistaīn, Noeīn, Santiagoīn). Kontsonantez bukatzen direnetan «-en»-ez egiten du genitiboa (Uriasen, Daviden, Juanen, Ruthen, Barachiasen, Abrahamen, Jacoben...)

C) Izen arruntetan beti «-ain» atzikia erabili du (untziaīn, arraīaīn, sepulturaīn, itsasoaīn, uraīn, autsaīn, buruaīn, matsaīn, gizonaīn, yaunaīn).

D) «-rekin» kasuan ere «-re» ordez «-aī» idatzi zuen (bozaīkin, pisuaīkin, cuidadoaīkin). Beste «-re» + atzikia kasuetan ere honela ageri da: erregeīn ganic, Mariaīn ganic; begiaīn daco, ortzaīndaco; Pedroīn gana, berteaīngana.

E) Mt. XXII, 20: Noīna = norena; Mt. XXII, 42: noīn semea.

Laburtuz, Baztango euskalki berezian ere Etxenike lekuko, genitiboan «ain» erabiltzen dela argi dago beste Nafarroako aipatu ditugun euskalkietan bezalaxe. Etxenikek dieresi erabili izanak adierazi nahi duena da, beste adibidetan bezala genitiboan ere «r» kontsonantea galdu egin dela.

«Ain» fonemaren erabilpena euskara osoan

Ain atzikia Hegoaldeko Goinafarrera euskalkiari dagokion euskal atzikia dela, gure ustez, argi azaldu dugu. Bonaparteren ikerlanetan hor dago. Lizarraga Elkanokoaren idatzietan era bai, nahiz urri. Aurkeztu ditugun beste hiru leku-koengan duen ugaritasunak ez dio zalantzarik biderik uzten.

Erabilkera zenbatekoa den badakigu. Zertarako erabiltzen den ere bai. Genitiboa eta honen eratorriak azaltzeko, alegia (-arengana, -arengandik, -arengan, -arentzako). Hau da: -aren = ain.

Erabilkera hau ordea, ez da Hegoaldeko Goinafarrera bakarrari dagokion atzikia. Ez da bide galdurik Iruñerrian bakarrik geratu den usoa, euskara osoan hegaz dabilen fonema baizik, nahiz eta ikuspuntu batzutatik begiraturik, urrun edo ilun somatu.

Euskara osoan jabetasuna adierazle direnean, erakusleen genitiboan «honen», «horren», «haren» erabilli ohi da:

«honen ama»
«horren etxea»
«haren dirua».

Baina erkaketa egiterakoan «ain» euskal genitibo forma erabiltzen da eta honela:


«honen gaizto zinenik»
«horren polita ote da?»
«ez da hain aberatsa»

ditugu. Denok dakigu euskara mintzatuan azken form hau, «ain» alegia, nagusitzen ari dela. Baina hala berean ezin uka daiteke beste biak ere hizkuntzari ego-

kitasun osoa ematen diotenik. Eta hirugarren forma «hain» hau, zer da «haren» genitiboa besterik?

Euskal erakusle urrunenak bi erabilkera mota du genitiboan. Bata jabetasuna = (h)aren, eta bestea erkaketa = «h»ain adierazten duena.

Aipatutako erkaketari jarraituz, nolakotasuna adierazteko euskarak «bezain» fonema du. Nola eratua da hitz hau? Argi dago:



Erkaketa multzoan euskal fonema «ain» aurrizki eran ere azaltzen zaigu: honen-beste, horren-beste, baina hain-beste eta ez «haren-beste». Eta bide beretik berdintasuna azaltzen duen «hain-bat» ere:

«Ni hainbat bider»

eta honen kide den soilik azaltzen den «haina»:

«zu haina (adina) banaiz ni ere»

Guzti honek argi laga du «ain» fonemak euskera osoan duen zabalera. Aintzintasuna du, autore zaharrenak lekuko, eta euskaraz mintzatu ahal izateko nahitanahiezkoa izan da egundaino.

Azken iritziak

Lehenbiziko aztergaia: «Ain» atzizkia duten berriak «fundi» izan diren edo ez. Gure ustez, hau erabakiko duen iker lana arkeologo eta historialarien egin-beharrak da. Eta ez du zerikusirik hortarako «ain» atzizkiz bukatua izan edo ez. Nafarroan ez ezik Euskalerra osoan bada adibiderik beren eratorreta latinoa dutela adierazten duten -ANO, -ANA bukaera duten izenak. Hauek ere «fundi» diren edo ez azaltzea arkeologoen lana da, nahiz filologia arabereaz izena latinoa dutela garbi izan. Hauek ez dute «ain» atzizkiarekin zerikusirik.

Bigarren aztergaia. Iruñerrian kokaturiko «ain» atzizkia duten berriek etimologia latinoa duten edo ez. Agiriz agiri ikertuz egin behar da honen azterketa izen bakoitzak izan duen aldaketa jakiteko, banan banan harturik zein eratorreta izan duten ikusi beharko litzatekelako. Ez dugu lan hau egingo hemen.

Halere gure ustez, egiteko dagoen lan hori egun batez egin dadin, orain azaltzen ari garen lan hau garrantzitsua deritzogu. Bi arrazoigatik:

—Bat, etimologia latinoa duten edo ez *errelatibizatu* egin bait dugu, hitzak izan duen eratorreta ere latinoa den edo ez jakiteko. Berdin da guretzat Etulus izen erromanoa, edo Erdiaroko erromantzekoa izan, Etulain herri izena euskal fonetika legeak jarraiturik osatu eta egokitu dela baldin badakigu, Petrirena izenari dagokion bezalaxe: etimologia latinoa, baina euskal fonetika lege erara egokitua. Eta etimologia latino izateak Euskalerran adierazten duen bakarra da, erligio eraginez, etimologia horren jabea-edo bere aitapontekoak -euskaldun ez ezik girstino ere zirela.

—Bi, beren etimologia zein den zehazki jakiteko *euskal fonologia arloan* saiatu behar dugu. Laburdura, palatalizaketa, azentua, antzeko diren beste hitz euskaldunek duten konposaketa eta abar. Euskal patronimoak, euskal toponimoak nola osatu izan diren jakin behar da. Adibidez Lizasoain herriaren etimologia zein den ja-

kiteko, Lizarraga izenak hobeto lagunduko digu, Lizasoainus bateren bila bazterrik bazter ibili baino.

Hirugarren aztergaia. «Ain» bukaera latinoa den edo ez: Auzi hau garbitu nahirik, erabili ditugun arrazoiak hauek dira:

1. Latinoa dela diotenek bere eratorjeta eta konposaketa zein den ez daude bat.

2. Hegoaldeko Goinafarreraren genitiboaren ezaugarri atzizkia da «ain», izen berezi eta arruntetan erabilia eta bietan leku izenak eratzeko euskal ohitura denez.

3. «Hain» = haren jatorriz izenordain genitiboa da euskera osoan, nahiz kasu batzutan era batera eta bestetan bestera erabili izan. Gaur egun euskal erkaketan berdintasun adierazle erabilia.

Honekin azken urte hauetan «ain» atzizkiz bukatzen diren herri izenetaz, eta baita toponimoetaz ere (azken hauek orain arte baztertuak) eman diren iritziei birplanteaketa egin diegu. Gure ustez, aurrerakoan guzti hontaz azalpenak ematerakoan, euskal fonetika eta fonologia arauetan finkaturik egin behar da beren iker lana dagokien benetako azalpena emateko.

Gure lan honek ez du noski auzia amaitzen, baina jakina da egoki azaldutako arazoa erdi konpondurik izaten dela. Hau izan da gure asmo bakarra: arazoa zertan datzan ikertu eta konponketa bidean jarri. Hau da bere emaria.

Birplanteaketa hontan arazo zehatzik gelditzen da oraindik «ain»-ez bukatzen diren izenen esanahia erabat argitua izateko: izen bakoitzaren historia eta esanahia, «ain» atzizkiak Hegoaldeko Goinafarreran deklinabiden duen erabilpena, hitz elkarketa egitean dituen aldaketa fonetikoak, «ain» atzizki honek izen-ordainekin duen lotura, zergatik erabiltzen den euskal erkaketan eta beste hainbat arazo. Euskaran eta filologian saskian dauden gereziekin gertatzen dena gertatzen bait da, xurten bati tira eta mordoaz azaldu. Mordo hontan bada guztion gosea asetzeko «h a i n -bat».

BIBLIOGRAFIA

1. «*Doctrina christioaren cathecima*», JOAQUIN LIZARRAGA ELKANOKOA. (Edición preparada por Juan Apecechea). Ed. Príncipe de Viana. Pamplona, 1979.
2. «*Tres sermones inéditos de Joaquín de Lizarraga en euskara*». JUAN APECECHEA PERURENA. Fontes n.º 19 (1975).
3. «*Sobre la lengua vasca*», JULIO CARO BAROJA. Ed. Txertoa. San Sebastián (1979).
4. «*Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*», JULIO CARO BAROJA. Salamanca, 1945.
5. «*Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de «l» y de «n» debidas al contexto fónico en los dialectos vascos*», ANA MARIA ECHAIDE ITIARTE. Fontes n.º 39 (1982).
6. «*Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas*», LUIS DE ELEIZALDE. RIEV n.º XIII-2; XIII-3; XIV-2; XIX-4; XX-1; XX-2; XXI1 y 2; XXI-4; XXIII 2 y 3; XXV-3.
7. «*Documentación medieval de LEIRE, siglos IX a XII*», ANGEL MARTIN DUQUE, Príncipe de Viana, Pamplona 1983.
8. «*Apellidos vascos*», LUIS MICHELENA. Txertoa. San Sebastián 1973.
9. «*Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache»*», LUIS MICHELENA. Fontes I (1969).
10. «*Acentuación alto-navarra*», LUIS MICHELENA. Fontes n.º 23 (1976).
11. «*Libro becerro» del Monasterio de Sta. Maria de Oliva*», JOSE ANTONIO MUNITA LOINAZ, Eusko Ikaskuntza, Donostia 1984.
12. «*Hitz komposatu eta eratorrien morfo-fonetika*», LUIS M.ª MUJIKA. Ed. Vascas, San Sebastián 1982.
13. «*Origen y desarrollo de la sufijación euskérica*», LUIS M.ª MUJIKA. Ed. Vascas, San Sebastián 1978.
14. «*La prefijación clave del euskera técnico y urbano*», LUIS M.ª MUJIKA. Ed. Vascas, San Sebastián 1978.
15. «*Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*», LUIS M.ª MUJIKA. Sendoa, San Sebastián 1982.
16. «*Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi*», recogido por el Príncipe Luis Luciano Bonaparte. FRANCISCO ONDARRA. Fontes n.º 39 (1982).
17. «*Mezkiriz*», PERPETUA SARAGUETA. «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» n.º 31 (1979).
18. «*Cuentas de un herrero de Valcarlos*», JOSE M.ª SATRUSTEGUI. Fontes n.º 2 (1969).
19. «*Toponimia de Ataun*», JUAN DE ARIN Y DORRONSORO. An. Eusko Folklore T. VIII (1928).
20. «*Notas al gráfico de la extensión en Navarra de los nombres de pueblos terminados en ain*», LEONCIO DE URABAYEN. Riev. n.º 16.
21. «*Toponimia alavesa*», GERARDO LOPEZ DE GUEREÑU. Anuario de Eusko Folklore, tomo 2.º (1979).
22. «*Historia General del País Vasco*», dirigida por JULIO CARO BAROJA, T. III pg. 233 y ss. y T. II pgs. 153-4. Ed. La Gran Enc. V. Bilbao 1980.
23. «*Baztango Euskalkiaz*»(I), PELLO SALABURU. Deustuko Unibertsitateko argitarazioak. 1980, Bilbo.

